

Prentsa oharra

Nota de prensa



DONOSTIAKO IKASTETXE PUBLIKOETARA BISITA, HAIEN ERREALITATEA EZAGUTZEKO

Aniztasuneko, Inklusioko eta Ingurumeneko zinegotzi ordezkari eta Hezkuntzako arduradun Iñigo Garcíak Donostiako hamaika ikastetxe bisitatu ditu azken hilabeteetan —horietako batzuk sare publikokoak dira, eta, beste batzuk berriz zentro itunduak—, eta bisita horien helburua izan da ikastetxe horien eguneroko errealitatea eta dauzkaten arazoak zuzenean ezagutzea.

“Hezkuntza Eusko Jaurlaritzaren eskumena izan arren, tokian bertan eta ikastetxeetako arduradunekin batera ikusi nahi izan dugu zer premia dauzkaten, nola lagun diezaiekegun, era horretan, Udalaren eta zentro horien arteko beharrezko lankidetzak indartzeko” adierazi du Iñigo Garcíak.

Ikastetxeen funtzionamendua eta lan egiteko modua ezagutzeaz gain, ikastetxeetako instalazioak eta azpiegiturak ere ikustatu dira, bakoitzak bere berezitasunak baititu.

Aniztasuneko, Inklusioko eta Ingurumeneko Zuzendaritzak eskaintzen dituen hezkuntza-programen inguruko informazioa eman die Garcíak ikastetxeetako orientatzaile eta zuzendariari. Zehazki, Hezkuntza Atalak hainbat programa eskaintzen ditu berdintasunaren eta indarkeria matxistaren prebentzioaren inguruan; eta aipatu behar da ikastetxeei baterako hezkuntzan dauden premien inguruko kontsulta bat egin ondoren prestatu dela programa-eskaintza hori.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Ikastetxeek gizarte-eraldaketarako duten garrantzia azpimarratu nahi izan da, bai eta balizko lankidetzetarako komunikazio-bideak ireki ere.

Kasu guztietan, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan egin dira bisitak; ikastetxe batzuk sare publikokoak dira, eta beste batzuk zentro itunduak dira.

5 eskola publiko

Amassorrain (0-12)

Hegoa (HH-LH)

Katalina Erauso (HH 2-DBH 6)

Mendiola (HH-LH + berezia)

Lauhaizeta (DBH)

6 zentro itundu

Axular Lizeoa

Kristau Eskola sareko ikastetxeak (5-18):

Larramendi Ikastetxea (12-18)

Jesuitak Donostia (2-18)

Mundaiz (2-18)

La Asunción (5-18)